

Erljioa

Erljio eta sineste espiritualen munduan, erromatarren etorrerak ez zuen erabateko aldaketarik ekarri. Lehengo sinesteak hein handi batean mantendu egin ziren, eta erromatarren munduko beste berri batzuk arian-arian egokituz joan ziren; askotan, erromatar itxuren azpian bizirik iraun zuten lehengo sineste eta erritualek. Kristautasunaren agerpenak eta hedapenak garrantzi handiko aldaketa ekarri zuen Antzinatean. Kristautasuna, K.o. IV. mendetik Erromatar Inperioaren erljio ofiziala bazen ere, V. mendearen hasiera arte ez da Euskal Herrian dokumentaturik ageri.



1.- Euskal Herrian hilak lurperatzeko ohitura ez zen guztiz zabaldu Behe-Inperioko garaian baizik. Ordukoak dira Cabriana (Komunioi, Araba), Iruña/Veleia edo Pompaeloko nekropolietakoak, K.o. IV. mendearen amaieraz gerokoak denak. Aurretik, Goi-Inperioaren garaian, lehengo aroetako tradizioari jarraitzen zioten. Hala, lehenago gorpua erretzea zen ohikoena, Santa Cruz (Eslaba) edo Iturissa-ko (El Espinal) nekropolietan ageri den bezala. Gorpuak lurperatzeko ohitura orokor bilakatu izanak, seguruenik, kristautasunaren eragina agertzen du.

Hori guztia jende helduari zegokion. Dakigunez, haurren kasuan, gorpuak etxeetan lurperatzeko ohitura mantendu zuten K.o. II. mendea arte gutxienez, Iruña/Veleia edo Las Ermitas-ko (Espejo, Araba) aurkikuntzek frogatzen dutenez.

2.- Hilarriak ehorzketa baten tokia seinalatzeko erabiltzen ziren. Euskal Herrian aurkitu diren erromatarren garaiko hilarrietan, sinbolo astralak, landare-motiboak, animalien irudikapenak zein pertsonenak agertu dira, batzuetan hainbat objektu (orraziak, lantzak, kurrikak, mailuak...) aldean dituztela.